- Papel de los profesionales y de las personas cuidadoras.

Urteko prestakuntza-saioko zenbat ordu eskaintzen diren adierazi beharko da. Puntuazioa honela egingo da:

Se deberá indicar cuántas horas de sesión formativa anuales se ofrecen. La puntuación se realizará del siguiente modo:

- ❖ Urtean 2 ordu eskaintzen dituztenei puntu 1 emango zaie.
- ❖ Urtean 4 ordu eskaintzen dituztenei 2 puntu emango zaizkie.
- ❖ Urtean 8 ordu eskaintzen dituztenei 4 puntu emango zaizkie.

- ❖ A quien oferte 2 horas anuales se le otorgará 1 punto.
- ❖ A quien oferte 4 horas anuales se le otorgarán 2 puntos.
- ❖ A quien oferte 8 horas anuales se le otorgarán 4 puntos.

B. Balio-iritzien bidez ebalua daitezkeen irizpideak (B artxibo elektronikoan sartzekoak): 47 PUNTU

B. Criterios evaluables mediante juicios de valor (a incluir en el archivo electrónico B): 47 PUNTOS

B.1).- Proposamenaren balio teknikoa…… 47 puntu.

B.1).- Valor técnico de la propuesta……. 47 puntos.

Kontratuaren garapena eta gauzatzea memoria batean zehaztuko da, eta lizitatzaileek nahitaez aurkeztu beharko dute.	El desarrollo y ejecución del contrato se concretará en una memoria que obligatoriamente presentará los licitadores.
Memoriak ezin izango ditu 30 orri baino gehiago izan (azala, aurkibidea, grafikoak, argazkiak), A4 formatuan, alde bakarrean, gutxienez "12" letra-tamaina eta lerroarte "bakuna" Times New Roman letra mota.	La memoria que servirá de base para la valoración no podrá exceder de 40 páginas (portada, indica, gráficos, fotografías), en formato A4, a un solo lado, al menos el tamaño de letra "12" y el interlineado "sencillo", tipo de letra Times New Roman.
Memoriek zorrotz errespetatuko dute atal honetan jasotako eduki-ordena bera. Egindako proposamenen argitasuna, zehaztasuna, espezifikotasuna eta bistaratzea baloratuko dira.	Las memorias respetarán escrupulosamente el orden de contenido recogido en este apartado. Se valorará la claridad, precisión, especificidad y visualización de las propuestas realizadas.
Atal honetako 23 puntuak gainditzen ez dituzten proposamenak lehiaketatik kanpo geratuko dira.	Las propuestas que no superen los 23 puntos de este apartado quedarán excluidas del concurso.
Honela banatuko da atal honetako puntuazioa:	La puntuación en esta apartado se distribuirá del siguiente modo:
B.1.1. Zerbitzuaren egitura eta antolaketaren zehaztapena. Lanaren antolamendua, funtzioak eta metodologia. (25 puntu)	**B.1.1 Definición de la estructura y organización del servicio a prestar. Organización del trabajo, funciones y metodología (25 puntos)**
Zerbitzua jasotzeko kolektiboa identifikatu:	Identificación del colectivo a intervenir:
• Haurrek zerbitzuan parte hartzeko aurkezten dituzten adierazleak (3 puntu). • Gurasoek edo legezko tutoreek adierazten dituzten adierazleak jaso (3 puntu). • Zerbitzua martxan jartzeko sistema. Erabiltzaileen ohiko alta-prozesua (2 puntu). • Taldeak antolatzeko aurreikusten diren alderdiak (2 puntu). • Zerbitzua aurkezteko proposamena, nork, nola eta idatziz edukia (3 puntu). • Gurasoekin edo legezko tutoreekin egindako lehen	• Indicadores que presentan los niños y niñas para participar en el servicio (3 puntos). • Detallar los indicadores que los padres, madres o tutores legales manifiestan (3 puntos). • Sistema de puesta en marcha del servicio. Proceso de alta ordinaria personas usuarias (2 puntos.) • Aspectos que se contemplan para la organización de los grupos (2 puntos). • Propuesta de presentación del servicio, quién, cómo y contenido por escrito (3 puntos). • Información que se recoge en la primera entrevista con los padres,

elkarrizketan jasotzen den informazioa. Informazioa zehaztea (4 puntu).
- Esku-hartzea proposatzea. Gurasoei edo legezko tutoreei bide laguntza. Informazioa zehaztea (4 puntu).
- Adingabeak eta gurasoek ikasturtea amaitzean izan duten bilakaera jasotzea. Zehaztu zer eta nola jasotzen den (4 puntu).

madres o tutores legales. Determinar la información (4 puntos).
- Propuesta de intervención y acompañamiento con los padres, madres o tutores legales. Determinar la información (4 puntos).
- Recogida de la evolución del menor y de los padres al finalizar el curso escolar. Detallar qué y como se recoge (4 puntos).

B.1.2. Protokoloak (2 puntu).

- Hauskortasun-, zaurgarritasun- eta babesgabetasun-egoerak hautematen dituztenean jarduteko protokoloak (2 puntu).

B.1.2. Protocolos (2 puntos).

- Protocolos de actuación ante la detección de situaciones de fragilidad, vulnerabilidad y desprotección (2 puntos).

B.1.3 Komunikazio- eta koordinazio-sistemak Gizarte Zerbitzuen Sailarekin, erabiltzaileekin eta senideekin (10 puntu).

Erabili beharreko teknologia, txosten-ereduak, erabiltzaileei eta udaleko gizarte-zerbitzuei emandako zerbitzuen jarraipena.

Informazioa koordinatzeko eta transmititzeko erabilitako euskarri teknologikoak eta dokumentalak proposatzea, honako hauekin:

- Haurren zaintzaile, guraso, edo arduradunekin (4 puntu).
- Gizarte Zerbitzuetako arduradun eta erreferentziazko gizarte-langileekin (4 puntu).
- Haurrekin lan egiten duten beste profesionalekin (2 puntu).

B.1.3. Sistemas de comunicación y coordinación con el Departamento de Servicios Sociales, personas usuarias y familiares (10 puntos).

Tecnología a utilizar, modelos de informes, seguimiento de servicios a las personas usuarias y a los servicios Sociales Municipales.

Propuesta de soportes tecnológicos y documentales empleados en la coordinación y transmisión de la información con:

- Con las personas cuidadoras de los niños y niñas, madres, padres o responsables. (4 puntos).
- Con la responsable del Departamento de Servicios Sociales y trabajadoras sociales de referencia. (4 puntos).
- Con otros profesionales que trabajan con los niños y niñas. (2 punto).

B.1.4. Esku-hartzearen eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko jarraipen-prozedura (10 puntu).

Zerbitzuaren ebaluazio jarraitu optimoa, barnekoa zein kanpokoa, egiteko proposatzen den metodologia baloratuko da.

- Artatutako pertsonen gorabeherak jasotzeko sistema, zerbitzuaren helburuen eta zereginen betetze-maila. Fitxa-eredua, ebaluazio-txostenak. Aurkeztu proposamenak (5 puntu).
- Ebaluazio-adierazleen proposamena, gogobetetze-inkestak (edukia, informazioa biltzeko teknikak, adingabeen arduradunei, oinarrizko gizarte-zerbitzuko langileei eta abar.) (2,50 puntu).
- Zumaiako Udalari eman beharreko memoriak, aurkibide-proposamena, edukia, zerbitzuari buruzko balorazioak eta hobekuntza-proposamenak (2,50 puntu).

B.1.4. Procedimiento de seguimiento de evaluación y mejora de la calidad de la intervención y servicio (10 puntos).

Se valorará la metodología que se proponen para una óptima evaluación continuada del servicio, tanto interna como externa.

- Sistema de recogida de incidencias de las personas atendidas, grado de cumplimiento de objetivos y tareas del servicio. Modelo de fichas, informes de evaluación. Presentar propuestas (5 puntos).
- Propuesta de indicadores de evaluación, encuestas de satisfacción (contenido, técnicas para la recogida de información, a los responsables de los menores, a los trabajadores del servicio social de base, etc.) (2,50 puntos).
- Memorias a entregar al Ayuntamiento de Zumaia propuesta de índice, contenido, valoraciones sobre el servicio y propuesta de mejoras (2,50 puntos).

12.- ALDAGAIEN ONARGARRITASUNA

Ez da onartuko aldagairik.

12.- ADMISIBILIDAD DE VARIANTES

No se admiten variantes.

13.- MODU ANORMAL BATEAN BAXUAK DIREN ESKAINTZAK

Kontratu honetan anormaltasun-presuntzioan baxutzat jotzeko irizpideak Herri Administrazioen Kontratuen Araudi Orokorreko 85. artikuluan biltzen direnak izango dira.

Halakoetan, Zerbitzu Publikoko Kontratuen Legeko 149. artikuluan aurreikusten den prozedura izapidetuko da, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatuko da.

Dena den, baztertu egingo dituzte kontratazio-organoek eskaintza horiek,

13.- OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS

Los criterios para la apreciación de bajas en presunción de anormalidad en este contrato son los que se contemplan en el artículo 85 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas

En estos casos deberá tramitarse el procedimiento previsto en el artículo 149 de la LCSP 2017, en el que se solicitará el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

En todo caso, los órganos de contratación rechazarán las ofertas si

egiaztatzen badute azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetan estatuan edo nazioartean aplikagarriak diren betebeharrak betetzen ez dituztelako direla modu anormal batean baxuak; eta horien artean sartzen da indarreko hitzarmen kolektibo sektorialak ez betetzea.

comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes.

Dena den, lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua ez duela justifikazioak behar bezala azaltzen ulertuko da, justifikazio hori osoa ez denean, edota ikuspegi tekniko, juridiko edo teknikotik egokiak ez diren praktika edo hipotesietan oinarritzen bada.

Se entenderá en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por la parte licitadora cuando ésta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.

Anormaltasun-presuntzioan sartuta egon den enpresari adjudikatu bazaio kontratua, kontratazio-organoak kontratua ondo gauzatzen den begiratuko du, kontratatutako zerbitzuen gaitasunean, obretan edo horniduretan urritasunik izan ez dadin.

Cuando la empresa que hubiese estado incursa en presunción de anormalidad hubiera resultado adjudicataria del contrato, el órgano de contratación velará por la adecuada ejecución del contrato, sin que se produzca una merma en la calidad de los servicios, las obras o los suministros contratados.

14.- ADJUDIKAZIORAKO LEHENTASUNAK BERDINKETA GERTATZEN DENEAN

14.- PREFERENCIAS DE ADJUDICACIÓN EN CASO DE EMPATES

Kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, ondorengo irizpide sozialak ordenan aplikatuz ebatziko da berdinketa, eskaintzak aurkezteko epearen amaierako uneari erreferentzia eginez, betiere:

Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas, este se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

- Ezintasunak dituzten langileen edo gizartetik baztertuak izateko egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa dutenak enpresa bakoitzaren langile-zerrendan; berdinketa badago, langileen zerrendan ezintasunak dituzten langile finko gehiena dituena hartuko da aintzat, edota inklusio bidean diren langileen kopuru handiena duena.
- Enpresa bakoitzeko langileen zerrendan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena

- Mayor porcentaje de personas trabajadoras con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.
- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.

duena.
- Enpresa bakoitzeko langile-zerrendan emakumezko langileen ehuneko handiena duena.
- Zozketa egingo da, aurreko irizpide horiek aplikatuta berdinketa desegiten ez bada.

Berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak berdinketa gertatzen denean aurkez ditzakete lizitatzaileek, ez aurretik.

15.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Hauek izango dira kontratazio-mahaiko kideak:

Lehendakaria: Gizarte Zerbitzuetako arduraduna. Pili Alberdi Gorrotxategi.
Kidea: Udaleko Idazkaria. Alexander Marañón Muñoz
Kidea: Kontu-hartzailea. Nerea Azpillaga Etxeberria.
Kidea: Berdintasun teknikaria. Karmele Gomez Garmendia
Idazkaria: Administrazio Orokorreko Teknikaria. Amaia Gonzalez Iribar

Horrez gain, udaleko teknikariek ere parte har dezakete, mahaiak hala eskatuta, aholkua emateko.

16.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo lanegunean osatuko da Kontratazio Mahaia, 10:00etan; «A» artxibo elektronikoak irekiko ditu, eta berorietako administrazio-agiriak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa bada, gehienez ere hiru egutegi-eguneko epea emango dio lizitatzaileari, aurkeztutako dokumentazioan zuzendu beharreko

- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.
- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por las partes licitadoras en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.

15.- MESA DE CONTRATACIÓN

La Mesa de Contratación estará integrada o constituida del modo siguiente:

Presidenta: Responsable de Servicios Sociales. Pili Alberdi Gorrotxategi.
Vocal: Secretario del Ayuntamiento. Alexander Marañón Muñoz.
Vocal: Interventora. Nerea Azpillaga Etxeberria.
Vocal: Técnica de Igualdad. Karmele Gomez Garmendia
Secretaria: Técnica de Administración General, Amaia Gonzalez Iribar.

Podrán asistir además, todo aquel personal técnico municipal cuya presencia sea solicitada por la Mesa, para ejercer labores de asesoramiento.

16.- APERTURA DE PROPOSICIONES

La Mesa de Contratación se constituirá el primer día hábil tras la finalización del plazo de presentación de las proposiciones, a las 10:00 horas, procederá a la apertura de los archivos electrónicos «A» y calificará la documentación administrativa contenida en los mismos.

Si fuera necesario, la Mesa concederá un plazo no superior a tres días naturales para que el licitador corrija los defectos u omisiones subsanables observados en la

akatsak edo gabeziak zuzendu ditzan.

Gero, «B» artxibo elektronikoak ireki eta aztertuko dira, balio-iritzi baten arabera haztatzekoak diren irizpideak biltzen dituzte artxibo horiek, zehazki. "B" artxibo elektronikoko edukiak horiek balioesteko ardura duen organoari igorriko dizkio, eta proposamen ekonomikoa jendaurrean ireki aurretik balioespen-txostena itzuli beharko dio hark. Horrez gain, beharrezkoak iruditzen zaizkion txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, baldintza-agiri honetan xedatutako irizpideen eta haztapenen arabera horiek balioesteko.

Kontratazio Mahaia berriro bilduko da, kontratatzailearen profilean (http: //www.zumaia.eus) adierazitako lekuan, egunean eta orduan, jendaurreko ekitaldian, eta balio-iritzi baten mendeko irizpideei adjudikatutako haztapena jakinaraziko die. Ondoren, "C" artxibo elektronikoak irekitzera joko da.

Balio-iritzi baten mendeko haztapen-irizpideak («B» artxibo elektronikoa) eta automatikoki haztatzen diren irizpideak («C» artxibo elektronikoa) balioetsita, adjudikazio-proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari Kontratazio Mahaiak.

documentación presentada.

Posteriormente, procederá a la apertura y examen de los archivos electrónicos «B», que contienen los criterios cuya ponderación dependen de un juicio de valor. Remitirá el contenido de los archivos electrónicos "B" al órgano encargado de su valoración, que deberá devolver el informe de valoración antes de la apertura pública de la proposición económica. Podrá solicitar, asimismo, cuantos informes técnicos considere precisos, para la valoración de las mismas con arreglo a los criterios y a las ponderaciones establecidas en este pliego.

Reunida de nuevo la Mesa de Contratación en acto público en el lugar, fecha y hora que se indique en el perfil del contratante (http: //www.zumaia.eus), se dará a conocer la ponderación asignada a los criterios dependientes de un juicio de valor. A continuación se procederá a la apertura de los archivos electrónicos "C".

A la vista de la valoración de los criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor (archivo electrónico «B») y de los criterios cuya ponderación es automática (archivo electrónico «C»), la Mesa de Contratación elevará al órgano de contratación la propuesta de adjudicación.

17.- DOKUMENTAZIOA ESKATZEA

Eskaintza onena egin duen lizitatzaileari eskaria egingo dio kontratazio-organoak, hamar laneguneko epean (eskaria jasotzen duen egunaren hurrengotik zenbatzen hasita) Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan (lege horrek Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ditu Europako

17.- REQUERIMIENTO DE DOCUMENTACIÓN

El órgano de contratación requerirá a la parte licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos a que hace referencia el artículo 140.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak); horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikuluaren arabera (baldintza-agiri hauetako 9. klausulan adierazitako agiriak); eta dagokion behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du.

transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, así como de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 (documentos señalados en la cláusula 9 de este pliego) y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente.

Ildo horretatik, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 150.000 €-ko gutxieneko estaldura duena, zuzenean instalazioek sor ditzaketen istripu, kalte eta galerak edota zerbitzua ematean egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak estaltzeko.

Del mismo modo, deberá aportar copia de la póliza y justificante pago de la prima de la contratación de una póliza de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 150.000,00 € de todos los accidentes, daños y perjuicios que puedan ocurrir, ocasionados directamente por las instalaciones o por los trabajos que se realicen como consecuencia de la prestación del servicio.

Eskaera adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarri den aurrekontuaren (BEZ gabe) ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor modura; hasiera batean, behin-behineko bermearen bidez egingo da hori, halakorik eratu bada.

De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía provisional, si se hubiera constituido.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik, hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzen sailkapenean zer ordenatan gelditu diren kontuan hartuta.

En el supuesto señalado en el párrafo anterior, se procederá a recabar la misma documentación a la parte licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

18.- BEHIN BETIKO BERMEA

18.- GARANTÍA DEFINITIVA

Hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, kontratuaren adjudikazioduna den enpresa behartuta dago adjudikazioaren zenbatekoaren %5i dagokion behin betiko bermea jartzera (BEZ gabe).

La empresa adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligada a constituir una garantía definitiva por importe del 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017

La garantía definitiva podrá constituirse en

Legeak, azaroaren 8koak, 108. artikuluan zehaztutako bitartekoak erabiliz eratu ahal izango da behin betiko bermea, eskudirutan eratzen direnak salbuespentzat hartuta; kasu horretan, Zumaiako Udalaren kontu korronteetako edozeinetan sartu beharko du zenbateko hori.

cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, con la salvedad de que las constituidas en metálico deberán de ser ingresadas en cualquiera de las cuentas corrientes del Ayuntamiento de Zumaia.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 110. artikuluan biltzen dituen kontzeptuei erantzungo die berme horrek, eta berme hori osorik edo zati bat itzultzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Lege horren 111. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, bermearen epea amaitzen denean eta adjudikaziodunak kontratuzko betebehar guztiak bete ondoren.

Esta garantía responderá a los conceptos incluidos en el artículo 110 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y su devolución, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la referida Ley de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales.

19.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA

19.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan adjudikatuko du kontratua.

Recibida la documentación solicitada, el órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.

Ezin izango da lizitazioa adjudikatu gabe utzi inoiz, baldin eta agirian zehaztutako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik badago.

En ningún caso podrá declararse desierta una licitación cuando exija alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego.

Adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, 15 eguneko epean.

La adjudicación deberá ser motivada se notificará a los candidatos o licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días.

Adjudikazioa egiteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzeko lehen ekitalditik kontatzen hasita.

El plazo máximo para efectuar la adjudicación será de 2 meses a contar desde el primer acto de apertura de las proposiciones.

20.- KONTRATUA GAUZATZEA

20.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

Kontratua formalizazioaren bidez perfekzionatuko da.

El contrato se perfeccionará con su formalización.

Kontratistak, kontratua gauzatzeko, datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren kontura, kontratua formalizatu aurretik, enpresa adjudikaziodunak adierazpen bat aurkeztu beharko du zerbitzariak non egongo diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazteko.

En el caso de que la ejecución requiera el tratamiento por el contratista de datos personales por cuenta del responsable del tratamiento, antes de la formalización la empresa adjudicataria deberá presentar una declaración en la que ponga de manifiesto dónde van a estar ubicados los servidores y desde dónde se van a prestar los servicios asociados a los mismos

Kontratua administrazio-agiri batean formalizatzeko epea bost egun baliodunekoa izango da, lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena helarazi ondoren emango zaien **kontratazioaren arloko errekurtso berezia aurkezteko hamabost egun balioduneko epea amaitzen denetik** zenbatzen hasita.

La formalización del contrato en documento administrativo se efectuará en el plazo de cinco días hábiles **una vez vencido el plazo de quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las partes licitadoras, para la interposición del recurso especial** en materia de contratación.

Administrazio-agiria titulu balioduna da edozein erregistro publikotan sartzeko.

El documento administrativo constituye título suficiente para acceder a cualquier registro público.

Kontratistak kontratua eskritura publiko modura jasotzeko eska dezake, baina, kasu horretan, gastu horiek bere gain hartuko ditu.

La parte contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen kausengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 ordaintzeko eskatuko zaio (BEZik gabe), zigor gisa. Zenbateko hori behin betiko bermetik kenduko da hasiera batean, halakorik badago.

Cuando por causas imputables a la parte adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido.

21.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

1.- Kontratuaren adjudikazioari dagokion ebazpenean, kontratuaren arduradun izango den pertsona izendatuko du kontratazio-organoak, eta kontratua nola gauzatzen den gainbegiratzea, adostutako zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea dagokio pertsona horri.

21.- RESPONSABLE DEL CONTRATO

1.- El órgano de contratación designará en la resolución de adjudicación del contrato a una persona responsable del contrato, a la que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.

Horrez gain, kontratuaren arduradun den pertsona horrek kolaboratzaileak izan ditzake, dagozkion titulu profesionalen edo ezaguera espezifikoen arabera; kontratuaren adjudikazioari dagokion ebazpenean bertan identifikatu dira beroriek.

Asimismo, la persona responsable del contrato podrá contar con personas colaboradoras, en función de títulos profesionales o conocimientos específicos, que serán identificadas en la misma resolución de adjudicación del contrato.

2.- Kontratuaren ardura duen pertsona hori izango da enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea.

2.- La persona responsable del contrato es la persona interlocutora entre la empresa adjudicataria y el órgano de contratación.

3.- Pertsona arduraduna eta harekin ari diren kolaboratzaileak, beren zereginak bete ahal izateko, askatasun osoz sartu ahal izango dira kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko tokietan, eta, kontratistak koordinatzaile izendatutako pertsonarekin batera, egoki iruditzen zaizkion ikuskapenak egin ahal izango ditu, toki horiek eta horiei dagozkien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko erabakigarriak badira. Kasu horietan, arduradunak toki horietara jotzeko beharra justifikatu beharko du, administrazio-espedientean xeheki eta berariaz adierazita; eta kontratazio-organoak berretsi egin beharko du hori aurrez.
Horrez gain, egoki iruditzen zaion informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango ditu, eta kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala gauzatzeko eta zeregin horietan sor daitekeen gorabehera oro konpontzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion bilerak sustatu eta bilera-deiak egin ahal izango ditu.

3.- Para el ejercicio de sus funciones, la persona responsable y quienes colaboren con ella tendrán libre acceso a los lugares de prestación del objeto del contrato, y podrán realizar las inspecciones que consideren oportunas acompañadas por la persona designada por la contratista como coordinadora, siempre que dichos emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato. En estos casos, la persona responsable del contrato deberá justificar la necesidad del acceso, de forma expresa y detallada en el expediente administrativo, que deberá ser ratificado, previamente, por el órgano de contratación.
Asimismo, podrán solicitar la información y documentación que estimen oportuna y promover y convocar las reuniones que resulten necesarias para la adecuada ejecución del objeto del contrato y para solucionar cualquier incidente en su ejecución.

Kontratuaren arduradunak egoki iruditzen zaizkion gidalerroak zehaztuk ditu.

La persona responsable del contrato establecerá las directrices oportunas.

4.- Bereziki, honako funtzio hauek dagozkio:

4.- En particular, le corresponden las siguientes funciones:

a) Kontratua agiri horretan adierazitako baldintzetan eta aurreikusitako epean gauzatzen

a) Comprobar que la ejecución se desarrolla en los términos del contrato, y en el plazo de

dela egiaztatzea. Bereziki, kontratuaren kalitate-eskakizunak, gizarte- eta ingurumen-klausulak, izaera sozialeko klausulak eta klausula berritzaileak betetzen direla berresteko beharrezkoak diren jarduketak garatzea.

duración previsto. En especial, llevar a cabo las acciones necesarias para verificar si se cumplen los requisitos de calidad del contrato y las cláusulas sociales, medioambientales, de tipo social e innovadoras.

b) Ez-betetzeren bat, edozein dela ere, gertatzen denean, kontratazio-organoari horren berri ematea, eta, hala dagokionean, proposamena egitea zigorrak ezartzeko prozedura hasteko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko edota kontratua behar bezala betetzen dela berma dadin edo enpresa kontratistak bere betebeharrak ez betetzeak eragindako kalte eta galeren ondorioz administrazioari dagokion ordaina eman diezaion beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

b) Informar al órgano de contratación sobre los incumplimientos de cualquier clase y, cuando corresponda, proponer el inicio del procedimiento de imposición de penalidades, la suspensión del contrato, la resolución del contrato y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para garantizar el correcto cumplimiento del contrato o para resarcir a la Administración de los daños y perjuicios que provoque el incumplimiento de la empresa contratista.

c) Kontratuan aldaketaren bat egin behar dela irizten dionean, aldaketarako gomendioa egitea, eragiketa eraginkorragoak ekarriko dituzten zehaztapenak, jarraibideak edota bestelako eskakizunak azalduz.

c) Recomendar cualquier cambio necesario en el contrato, como especificaciones, instrucciones u otros requisitos que proporcionen operaciones más eficaces.

d) Kontratazio-organoaren jarraibideak betez, kontratuari atxikitako giza eta gauza-baliabideetan aldaketak baimentzea, kontratua aldatzea ez dakarten kasuetan.

d) Autorizar, siguiendo las instrucciones del órgano de contratación, la alteración de medios humanos o materiales adscritos al contrato en aquellos supuestos que no supongan modificación del mismo.

e) Luzapenen beharrari eta egokitasunari buruz informatzea eta horiek motibatzea.

e) Informar y motivar la necesidad y procedencia de prórrogas.

f) Enpresa kontratistak azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeko duen betebeharra betetzen duela egiaztatzea.

f) Comprobar que la empresa contratista cumple con su obligación de pago a las subcontratistas o suministradoras.

5.- Kontratua gauzatzeko garaian aldatu

5.- Si durante la ejecución del contrato se

egiten badira kontratuaren arduraduna edo haren kolaboratzaileak, halaxe jakinaraziko zaio enpresa kontratistari, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

22.- KONTRATISTAREN NORTASUNEAN JARRAIPENA

1.- Enpresen edo horien jarduera-adarren artean bategiteak, zatiketak, ekarpenak edo eskualdatzeak izaten direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua egozten zaion erakundearekin, eta erakunde horri subrogatuko zaizkio handik sortutako eskubide eta betebehar guztiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkarte bat denean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 69.8 artikuluan xedatutakoa beteko da.

2.- Kontratistaren betebeharra da bere izaera juridikoari eragiten dion edozein aldaketaren berri ematea administrazioari, modu fede-emailean, eta, horrelakoetan, gelditu egingo da dagozkion faktura ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa, horiek egiaztatu arte.

3.- Kontratua eman behar zaion erakundeak beharrezkoak diren kaudimen-baldintzak ez dituelako subrogazioa egin ezin bada, kontratua suntsitu egingo da, eta adjudikaziodunaren erruagatik suntsitutzat emateko arrazoitzat hartuko da, ondorio guztietarako.

23.- KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratutik datozen eskubideak eta obligazioak hirugarren bati laga diezazkioke adjudikazioduna den pertsonak edo enpresak, haren ezaugarri tekniko eta pertsonalak ez badira arrazoi erabakigarriak izan kontratuaren adjudikazioan, eta lagapen horretan ez

modificara la persona responsable del contrato o las personas colaboradoras, será puesto en conocimiento de la empresa contratista por escrito y publicado en el perfil del contratante.

22.- SUCESIÓN EN LA PERSONA DE LA CONTRATISTA

1.- En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato con la entidad a la que se atribuye el contrato, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se cumplen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la LCSP. Cuando la contratista sea una unión temporal de empresas se estará a lo establecido en el artículo 69.8 de la LCSP.

2.- Es obligación de la contratista comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previstos para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifiquen los mismos.

3.- Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la adjudicataria.

23.- CESIÓN DEL CONTRATO

1.- Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por la persona o empresa adjudicataria a una tercera persona siempre que sus cualidades técnicas o personales no hayan sido razón determinante de la adjudicación del

bada gertatzen merkatuko lehiaren murrizketarik.

2.- Kontratistak bere eskubideak eta obligazioak hirugarren pertsona baten esku utz ditzan, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Lagapena egin aurretik, kontratazio-organoak berariaz baimentzea lagapena.
b) Lagatzaileak gutxienez kontratuaren % 20 gauzatuta izatea.
c) Lagapen-hartzaile den enpresak kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena izatea, kontratuaren gauzatze-fasearen zer unetan dauden aintzat hartuta eska dakiokeenaren arabera; lagapen-hartzaileak behar bezala sailkatuta egon beharko du, lagatzaileari baldintza hori eskatu bazaio, eta ez du kontratatzeko debekurik izan behar bere gain.
d) Enpresa adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

3.- Lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari dagozkion eskubide eta obligazio guztietan.

contrato y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado.

2.- Para que la contratista pueda ceder sus derechos y obligaciones a terceras personas deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la cesión.
b) Que la cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato.
c) Que la empresa cesionaria tenga capacidad para contratar y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificada si tal requisito ha sido exigido a la cedente, y no estar incursa en una causa de prohibición de contratar.
d) Que la cesión se formalice, entre la empresa adjudicataria y la empresa cesionaria, en escritura pública.

3.- La cesionaria quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones que corresponderían a la cedente.

24.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK ETA OBLIGAZIOAK

24.1.- Baldintza orokorrak

1.- Baldintza-agiri honetan xedatutako klausulei eta arau teknikoen agiriari hertsiki lotuta gauzatuko da kontratua, bai eta kontratuaren ardura duen pertsonak kontratistari interpretaziorako emandako jarraibideen arabera ere.

2.- Adjudikazioduna da zerbitzuaren xede diren prestazioen kalitatearen erantzule, bai eta administrazioarentzako edo hirugarrenentzako kalteen erantzule ere, baldin eta kontratua gauzatzean ez-

24.- CONDICIONES Y OBLIGACIONES DE EJECUCIÓN

24.1.- Condiciones generales

1.- El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en este pliego, al pliego de prescripciones técnicas y de acuerdo a las instrucciones que para su interpretación, diera a la contratista la persona responsable del contrato.

2.- La adjudicataria será responsable de la calidad de las prestaciones objeto de servicio, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceras personas de las omisiones,

egiteek, hutsegiteek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek eragin badituzte kalte horiek.

3.- Kontratistak (pertsona edo enpresa) ekipamendu eta giza baliabide egokiekin eman behar du zerbitzua, eta lanak gauzatzearen ondorioz sortzen diren premiei erantzun behar die uneoro. Proposamenean adierazitako bitarteko teknikoak eta, oro har, lanak burutzeko behar diren guztiak ere emango ditu kontratistak.

4.- Dena den, erantzukizun zibileko asegurua izan beharko du kontratistak, kalteengatik izan dezakeen erantzukizun oro estaltzeko. Kontratu horren kopia aurkeztu beharko du enpresa adjudikaziodunak, bai eta azken ordainagiriaren kopia ere, kontratua sinatu aurretik.

Hala eta guztiz ere, kontratistak erantzun beharko die kalte eta galerei, aseguru-polizan ezarritako mugen gainetik daudenean ere; eta hari dagozkio poliza horiek estali gabeko ondasun eta arriskuekin lotutakoak ere.

5.- Administrazioak erabakiko du kontratistak gauzatutako prestazioa hura gauzatu eta betetzeko ezarritako arauetara egokitzen den, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak gauzatzeko eta horien harrera egitean hautemandako okerrak zuzentzeko eska dezake. Kontratistari egotz dakizkiokeen akats eta hutsegiteen ondorioz egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, berori baztertu dezake, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita gelditu da, edota ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du, hala dagokionean.

6.- Kontratu hau gauzatzen arituko diren langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du, eraginkortasunez

errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

3.- La persona o empresa contratista deberá prestar el servicio con el equipo y medios personales adecuados, respondiendo en todo momento a las necesidades que se deriven de la marcha de los trabajos. Aportará también los medios técnicos incluidos en su propuesta y, en general, cuantos se precisen para la buena ejecución de los trabajos.

4.- La contratista deberá disponer en cualquier caso de un seguro de responsabilidad civil que cubra su posible responsabilidad por daños. La empresa adjudicataria deberá aportar copia de dicho contrato, así como copia del último recibo abonado con carácter previo a la firma del contrato.

En todo caso, serán soportados por la contratista los daños y perjuicios en lo que superen los límites que se establezcan en las pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos por las mismas.

5.- La Administración determinará si la prestación realizada por el contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, requiriendo, en su caso, la realización de las prestaciones contratadas y la subsanación de los defectos observados con ocasión de su recepción. Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables al contratista, podrá rechazar la misma quedando exento de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.

6.- En relación con las personas trabajadoras destinadas a la ejecución de este contrato, la empresa contratista

eta modu jarraituan, enpresariak berezkoa duen zuzendaritza ahalmena. Bereziki, bere gain hartuko ditu: soldaten negoziazioa eta ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak; lan-arriskuen prebentzioaren esparruko legezko obligazioak; diziplina-zehapenak ezartzea, hala dagokionean; Gizarte Segurantzako obligazioak, kotizazioen ordainketa eta prestazioena barne; eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta obligazio guztiak.

asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo el poder de dirección inherente a toda persona empresaria. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las sustituciones, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, la imposición – cuando proceda-de sanciones disciplinarias, las obligaciones en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre empleado y empleador.

7.- Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du, bere langile-zerrendaren barnean dagoena, honako zeregin hauek betetzeko:

A) Jakinarazpenak jasotzea eta enpresa kontratistako langileek kontratua gauzatzearekin lotuta administrazioari egin beharreko jakinarazpen oro helaraztea; xede horretarako izendatutako koordinatzailearen, teknikariaren edo solaskidearen bidez egingo da.
B) Enpresaren lan-araudia betetzen den aztertu eta kontrolatzea, batez ere langileen laneko asistentzia eta oporraldien gozamena kontuan hartuta, kontratatutako zerbitzuei ez eragiteko.
C) Kontratua gauzatzeari atxikita egoteari uzten dioten langileak badaude kontratistaren enpresaren barnean, horren berri ematea administrazioari, batez ere horien esku izan diren lan-baliabideak egokiro kudeatu ahal izateko.

7.- La empresa contratista deberá designar al menos una persona responsable para la coordinación técnica, integrada en su propia plantilla, que tendrá entre sus obligaciones las siguientes:

A) Recibir y transmitir cualquier comunicación que el personal de la empresa contratista deba realizar a la Administración en relación con la ejecución del contrato se realizará a través del coordinador, técnico o interlocutor designado al efecto.
B) Controlar el cumplimiento de las normas laborales de la empresa, en particular en materia de asistencia del personal al lugar de trabajo y disfrute de vacaciones, de manera que no se perturbe la prestación del servicio contratado.
C) Informar a la Administración de los empleados del contratista que dejen de estar adscritos a la ejecución del contrato, en especial a los efectos de poder gestionar adecuadamente los medios de trabajo de que aquellos hubieran dispuesto.

Itundutakoa gauzatzeari dagokionez, En relación con la ejecución de lo

kontratistak ez baditu ezagutzen kontratuan jasotzen diren baldintzak, kontratuari erantsitako dokumentuan jasotzen direnak edota administrazioak onartutako jarraibideak, baldintza-agiriak eta arauak, ez ezagutze horrek ez du salbuetsiko horiek guztiak bete beharra izatetik.

pactado, el desconocimiento del contrato en cualquiera de sus términos, de los documentos anejos que forman parte del mismo o de las instrucciones, Pliegos o normas de toda índole aprobadas por la Administración, no eximirá al contratista de la obligación de su cumplimiento.

8.- Lizitazioan esku hartzen duten enpresek, beren borondatez, onartu egiten dute lizitazio-, adjudikazio- eta gauzatze-prozesuen ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

8.- Las empresas que concurran a la licitación aceptan voluntariamente dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución.

24.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

24.2.- Condiciones especiales de ejecución del contrato

Kontratua gauzatzeko nahitaez bete beharreko baldintza bereziak dira honako hauek:

Son obligaciones especiales de ejecución las que se detallan a continuación:

24.2.1.- Lan-baldintzak eta baldintza sozialak

24.2.1.- Condiciones laborales y sociales

1.- Lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarriak diren lege-xedapenak, araudiak eta xedapen konbentzionalak betetzera behartuta dago kontratista.

1.- La contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de seguridad social, de seguridad y salud en el trabajo.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik enpresa edo pertsona adjudikaziodunak Udalari horren berri emango dio (eskatutako titulazioa, esperientzia eta hizkuntza gaitasuna betetzen dituela ziurtatu beharko du).

Durante la vigencia del contrato y siempre que se produzca una variación en la plantilla con que se inicia el mismo, bien sea por jubilación, defunción, baja voluntaria, despido, invalidez, etc. o cualquier otra que se produzca por necesidades del servicio la empresa o persona adjudicataria está obligada a dar cuenta al Ayuntamiento previamente a cubrir la baja causada (deberá acreditar el cumplimiento de titulación, experiencia y capacitación lingüística exigidos)

Enpresa edo pertsona adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Zumaiako Udalak ez

Será de cuenta y cargo de la empresa o persona adjudicataria exclusivamente la contratación del personal a su servicio y su formación. El Ayuntamiento de Zumaia

du inongo harreman juridikorik izango enpresa edo pertsona adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

no tendrá relación jurídica alguna con el personal al servicio de la adjudicataria durante el plazo de vigencia del contrato objeto de este pliego ni al término del mismo.

2.- Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzaileek, adjudikazioa lortzen badute.

2.- Quienes liciten deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a las personas trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarias.

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartutako egongo dira.

Asimismo, estarán obligadas a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a las personas trabajadoras.

3.- Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa edota pertsona adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.

3.- La empresa o persona adjudicataria deberá a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel.

Baldintza hau betetzen dela bermatzeko, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzak jasotzen dituen hitzarmenaren kopia eta nomina-agiriak, edo, hala badagokio, zinpeko aitorpena, eskatuko dira.

Para garantizar el cumplimiento de este requisito se exigirá copia del convenio que recoja las condiciones de trabajo que resulten de aplicación efectiva a los trabajadores y trabajadoras, así como los documentos de nómina o, en su caso, declaración jurada.

24.2.2.- Kontratua gauzatzean zaindu beharreko hizkuntza baldintzak

24.2.2.- Condiciones lingüísticas de ejecución

Kontratu honek bete beharra dauka bi hizkuntza ofizialen araubidea, EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria, eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua; horien artean daude, besteak beste, Zumaiako Udalaren

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre ellos los criterios lingüísticos aprobados por el

hizkuntza-irizpideak, euskaren erabilera-planaren esparruan onartutakoak.

